



ZESTA PUNTA GUUK EXPERIENCE EKITALDIAREN LEGE-OINARRIAK

1. ENPRESA ANTOLATZAILEA ETA SUSTAPENAREN HELBURUA

Guuk Telecom SAK, zeinak A75238972 baitu IFZa eta Gipuzkoan baitu helbide soziala, Donostian (Zuatzu Enpresa Parkea, Easo eraikina, 2. solairua, 8. zk., 20018) (aurrerantzean, GUUK edo Antolatzailea), zesta-puntako tour bat egingo du, eta interesa duten guztiek parte hartu ahal izango dute hartan, landing honetako eremu guztiak betez: www.guuk.eus/zesta-punta

Lege-oinarriak esteka honetan egongo dira eskuragarri: www.guuk.eus/lege-oinarriak-zesta-punta

Lege-oinarri hauetan xedatutakoari lotuko zaio ekitaldia:

2. EKITALDIAREN FUNTZIONAMENDUA

Nork har dezake parte ekitaldian?

Parte hartzeko baldintzak hauek dira:

Haurrentzako ekitaldia da, baina 8 urtetik gorako edonork parte har dezake, nahi izanez gero. Guztira, 30 hurrek parte har dezakete ekitaldian, eta lekuen % 50 Guuk-eko bezeroentzat izango da (15 leku).

Adingabeek gutxienez heldu batekin joan beharko dute.

Nola esleitzen dira lekuak?

Lekuak heldu ahala esleitu dira, guztiak bete arte. Posta elektronikoz baieztatuko da, 48 orduko epean (astelehenetik ostiralera).

Leku guztiak betetakoan, erreserbako zerrenda bat sortuko da, izena emandako norbaitek atzera egiten badu ere. Guuk-eko bezeroek lehentasuna izango dute erreserbako zerrenda horretan; hau da, lekuren bat libre geratzen bada, Guuk-eko bezeroei eskainiko zaie aurrena.

Zein da ekitaldirako izena emateko azken eguna?


Ekitaldia egin baino 3 lanegun lehenago.

Nola eman behar da izena?

Bete landing honetako formularioko eremuak (2023/02/6tik aurrera egongo da eskura): www.guuk.eus/zesta-punta

- a. Izen-abizenak
- b. Mugikorra
- c. Helbide elektronikoa
- d. NANA (bezeroa izanez gero, kontratuaren titularraren NANA)

Nahitaezkoa da adingabearen irudia erabiltzeko baimena bete, sinatu eta Guuk-i zestapunta@guuk.eus helbide elektronikora bidaltzea, edo ekitaldiaren egunean



antolatzaileei ematea. Baimena hemen eskuratu daiteke: www.guuk.eus/argazkibaimenazestapunta. Baimen hori bi gurasoek edo adingabearen legezko tutoreak bete eta sinatu behar dute.

Non eta noiz izango da ekitaldia?

Ekitaldia 6 pilotalekutan egingo da, egun hauetan:

- 2023ko otsailaren 26a, Bilbo
- 2023ko martxoaren 12a, Gasteiz
- 2023ko martxoaren 26a, Donostia
- 2023ko apirilaren 23a, Iruñea
- 2023ko maiatzaren 7a, Gernika
- 2023ko maiatzaren 21a, Durango
- 2023ko ekainaren 4a, Zarautz

Zertan datza ekitaldia?

Ekitaldiak 1h30 iraungo du, gutxi gorabehera, eta hau izango da egitaraua:

- Jon Zabala zesta-puntako jokalaria profesionalaren sarrera
- Ikusleen Q&A
- Jon Zabalaren erakustaldia
- Hurrekin jarduerak egingo dira
- Agurra / Guuk-en merchandisinga emango da

3. LEGE-OINARRI HAUEK ONARTZEA

Ekitaldian parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea; beraz, onartzen ez badira, parte-hartzailea baztertu egingo da, eta, ondorioz, GUUKek ez du bete beharrik izango parte-hartzaile horrekin hartutako konpromisorik.

GUUKek eskubidea du ekitaldiaren funtzionamendu on eta arauzkoari iruzur egiten dion edo hura asaldatzen edo gaizki erabiltzen duen parte-hartzaile oro justifikatuta kanporatzeko eta ekitaldi honen ondorioz sortzen den edozein auzi ebazteko.

Ekitaldiko parte-hartzaileen artean desadostasunik izanez gero, enpresa antolatzaileak oinarriak interpretatzeko eskubidea izango du.

GUUKek eskubidea du edozein aldaketa egiteko eta ekitaldia bertan behera uzteko, arrazoi justifikaturik gabe.

Ekintza honetan parte hartzea doakoa da.

4. DATU PERTSONALEN BABESA

Ekitaldi honetan parte hartuko duzunez, jakinarazten dizugu GUUKek zure datu pertsonalak tratatuko dituela, zeinak ekitaldian zure borondatez izena ematean adierazi baitituzu.

Tratamenduaren helburuak hauek dira:



- Ekitaldiko zure parte-hartzea kudeatzea.
- GUUKek datu-base bat sortzea saridunaren datu pertsonalekin bakarrik, lekua esleitzea kudeatzeko.

Zure datu pertsonalak ekitaldian borondatez parte hartzean sortzen den harreman juridikoaren arabera tratatuko dira, eta jaso zireneko helburuak irauten duen bitartean gordeko dira, hau da, ekitaldiaren kudeaketa eta antolaketa, bai eta legezko betebeharrak betetzeko behar den denboran ere.

Ekintzan parte hartzen dutenen datuak ezabatu egingo dira legezko betebeharren preskripzio-aldia amaitutakoan. Zure datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharrak ez badago edo behar adinako legitimazio-oinarririk ez badago.

Edozein unetan, eskubidea duzu tratatzen ditugun datuetatik informazioa eskuratzeko, datuetara irispidea izateko, haiek zuzentzeko eta ezereztatzeko, tratamenduari uko egiteko edo mugatzeko, eta erabaki indibidualizatu automatikoen mende egon ez daitezen eskatzeko. Eskubide horiek baliatzeko, mezu bat bidali behar duzu helbide honetara: kaixo@guuk.eus.

Eskubideak baliatzeko eskaeran honako datu hauek adieraziko dira:

- Izen-deiturak.
- Eskaeraren zehaztapena.
- Jakinarazpenetarako helbidea.

Datuen babeserako gure ordezkariarekin ere jar zaitezke harremanetan, helbide elektronikoa honetan: dpo@guuk.eus.


Nolanahi ere, uste baduzu ez direla behar bezala aintzat hartu zure eskubideak, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diozu Datuak Babesteko Espainiako Agentziari (<https://www.aepd.es/>).

5. MUGAK

Baldin eta agerian gelditzen bada parte-hartzaileraren batek ez dituela betetzen oinarrietan eskatutako baldintzak edo parte hartzeko emandako datuak ez direla baliozkoak, haren parte-hartzea baliogabetzat jo eta automatikoki ekitalditik kanpo geratuko da.

6. IRUZKINAK EDO IRITZIAK ARGITARATZEA

Ez da onartuko eduki desegokia duen iruzkin edo iritzirik, ezta iraingarria edo diskriminatzailea denik edo hirugarrenen eskubideak urratzen dituenik ere. Orobat ez dira onartuko ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen printzipioak urratzen dituen partikular baten aurkako iruzkinak. GUUK ez da erantzule izango ekitaldian parte hartzen dutenek iruzkinen bat egin eta beste parte-hartzaileraren bati kalte eginez gero edo haien sentiberatasuna urratuz gero.



7. ANTOLATZAILEAREN ERANTZUKIZUNA

GUUKek ez du inolako erantzukizunik izango telekomunikazio-sareen aldi baterako erabilgarritasunik ezagatik edo funtzionamendu-jarraitasunik ez izateagatik sor daitezkeen kalte-galerengatik.

GUUK ez da erantzule izango parte-hartzaileei kanpoko webgune horietan eskura jarritako edozein eduki, produktu edo zerbitzuren erabilerari dagokionez eragindako galera edo kalteengatik.

GUUKek ez du inolako erantzukizunik izango ekintza honetako sariari dagokionez geroago gerta litezkeen kalte edo erreklamazioengatik. GUUK salbuetsita geratuko da parte-hartzaileenganako betebeharrak edo konpentsazio guztietatik baldin eta ezinbestean edo legez hala aginduta ekintza hau baliogabetu edo bertan behera utzi behar bada. Egoera horren berri behar bezala emango litzaieke parte-hartzaileei.

8. LEGERIA APLIKAGARRIA - EZTABAIDA

Ekitaldiari lotutako erreklamazioak idatziz bidali behar zaizkio GUUK Telecom SARI (IFZa: A75238972), idatzia GUUKi zuzenduta, parte hartzeko azken egunetik hogeita hamar (30) egun igaro baino lehen. Enpresaren egoitza sozialera bidali behar da erreklamazioa: Zuatzu Enpresa Parkea, Easo eraikina, 2. solairua, 8. zk., 20018 Donostia, Gipuzkoa.

Oinarri hauen aplikazioari edo interpretazioari buruzko eztabaidarik sortzen bada, eta adiskidetasunezko akordiorik lortzen ez bada, auzia Donostiako auzitegien esku jarriko da.

Oinarri hauek Espainiako legeriaren mende daude.